

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2012ko MARTXOAREN 1ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2012ko martxoaren 1ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATEA: Xabier Mujika Pagola

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Karlos Irazu Muñoa
Imanol Aranzabal Lasa
Aritz Usandizaga Larrañaga
Jon Tejeria Otermin

Bere ezin etorria azaltzen du: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea


IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
 - **2012ko otsailaren 2an egindako ohiko bilkura**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo Beobidegain 20 etxearen teilatuan eguzki plaka fotovoltaikoak jartzeko obra baimena eskaera, J.M.L. jauna G.U.L izenean.**
- 4. 2012 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaeren onespena, hala bada.**
- 5. 2012 urterako udal langileen egutegiak onartzea, hala bada.**
- 6. Agiñazabal Handi baserriko lurretan pabiloi bat egiteko obra baimenaren izapidearekin jarraitzea, hala bada.**
- 7. Fakturak eta ordainketak.**
- 8. Beste batzuk.**
- 9. Erregu, galderak eta mozioak.**

...//...



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- ▣ 2012 urteko otsailaren 9ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik ez dituela ebazpenik eman, berri ematen du Idazkari-kontuhartzaile andreak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

LARRAULGO BEOBIDEGAIN 20 ETXEAREN TEILATUAN EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK JARTZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, J.M.L. JAUNA G.U.L. REN IZENEAN

Ikusirik J.M.I. jaunak G.U.L. jaunaren izenean eginiko eskaera, non Larraulgo Beobidegain 20 etxearen teilatuan eguzki plaka fotovoltaikoak jartzeko obra baimena eskaera egiten duen.


Ikusirik 2012ko otsailaren 22an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO BEOBIDAGAIN 20 ETXEAREN TEILATUAN EGUZKI PLAKA FOTOVOLTAIKOAK JARTZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA

J.M.L. jaunak, G.U.L.-ren izenean, Beobidegain 20 etxearen teilatuan eguzki plaka fotovoltaikoak jartzeko baimena eskatzen du, P.E. ingeniariak sinatutako eguzki instalazioaren proiektu bisatua aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Proiektuan memoria, baldintza agiria, aurrekontua, segurtasun eta osasun oinarritzko azterlana, hondakinen kudeaketa-azterketa, suteen aurkako justifikazioa eta ingurugiroaren azterketa etortzen dira.

Beobidegain 20 ezkerreko etxebizitzaren eguzki instalazio berriak 10KW-ko potentzia izango du eta argindarraren sare nagusira konektatuko da. Plakak ekialdeko teilatuan



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

jarriko dira eta 72m2 azalera izango dute osotasunean. Eguzki plaken instalazioaren aurrekontua BEZ-a gabe 9.820€-koa da.

Euskal Herriko Autonomia Elkarteko lurralde antolaketarako artezpideetan, ordezko energiak bultzatu behar direla esaten da.

Beobidegain 20 etxea Larraulgo lur hiritargarrian kokaturik dago, bereziki a.10.3.1/4 lursailean.

Larraulgo Arau subsidiarioen Lur hiritargarriko 26º artikulua honela dio:

Elementos sobre la línea de cubierta

Por encima de la línea de cubierta, sólo se permitirá la construcción de chimeneas o elementos de instalaciones, tales como antenas, pararrayos, etc.”

Hau honela izanik eta etxebizitzaren hobekuntza energetiko bat dela ikusirik, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

Dena den, eguzki plakak eraikineko teilatuaren gainean jarri nahi direnez, eskuineko etxebizitzaren jabearen onespena ekarri beharko da udaletxera udal baimena eman aurretik.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.”

Ikusirik 2012ko otsailaren 27an, Udaletxe honetan aurkezten dela, M.A.L.J. andreak eginiko idatzi bat, non bere baimena ematen duen Beobidegain 20etxeko teilatuan eguzki plaka fotovoltaikoak jartzeko.

Gaia azterturik, Udalbatzak, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.M.L. jaunak G.U.L. jaunaren izenean eginiko eskaera onestea, hau da, Larraulgo Beobidegain 20 etxearen teilatuan eguzki plaka fotovoltaikoak jartzeko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

LAUGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2012 URTERAKO UDAL ZERGA-TASEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2012 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2012ko urtarrilaren 9tik otsailaren 10rarte epea ireki zela, 4 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2012 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

- J.A.Z.: SS-3090-L ibilgailu historikoa.
- O.O.R.: IBI -famili ugaria.
- A.A.J. IBI –Eguzki plakak.
- I.O.D.: IBI –Eguzki plakak.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

2012 URTERAKO UDAL LANGILEEN EGUTEGIAK ONARTZEA, HALA BADA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2012 ekitaldirako egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


BAKARRA: 2012 urterako Udal langileek aurkezturiko egutegiak onartzea.

SEIGARREN PUNTUA

AGIÑAZABAL HANDI BASERRIKO LURRETAN PABILOI BAT EGITEKO OBRA BAIMENAREN IZAPIDEAREKIN JARRAITZEA, HALA BADA

Ikusirik K.I.M. jaunak 2011ko urriaren 14ean eginiko eskaera, hau da, Agiñazabal Handi baserriko lurretan pabiloi bat egiteko obra baimena eskaera.

Ikusirik 2011ko azaroaren 10ean eginiko Udalbatzarrean erabaki zela, K.I.M. jaunak aurkezturiko eskaera baimendu aurretik Larraulgo Arau Subsidiarioetan agertzen den modura Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentuko on iritzia behar



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

duenez, dokumentazioa Foru Aldundira igortzea, azken honek dagokion txostena egin dezan. Aipaturiko dokumentazioa igorri zelarik.

Ikusirik 2011ko abenduaren 1ean egindako Udalbatzarrean erabaki zela, Agiñazabal Handi baserriaren lurretan pabiloi bat egiteko K.I. jaunak Udaletxe honetan aurkeztutako dokumentazioa, hau da, jardueraren biabilitate plana eta pabiloiari buruzko distribuzio plana Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentura igortzea, azken honek dagokion txostena egin dezan. Aipaturiko dokumentazioa igorri zelarik.

Ikusirik oraindik ez dela Udaletxe honetan Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentuko txostenik jaso, non on iritzia ematen zaion K.I. jaunari Agiñazabal Handi baserriko lurretan pabiloi bat egiteko.

Ikusirik ekainaren 30eko 2/2006 Legea, Euskadiko lurzorua eta hirigintza legearen 210.3 artikuluan dioena:

“Prozeduraren instrukzioan zehar, baldin eta lizentziak eragiten dien beste herri-administrazio batzuek -kontzejuak barne- txostena egitea beharrezkoa bada, udalak eskaera aurkeztu dela jakinaraziko die, hilabeteko epean beren eskumenekoak diren alderdiei buruzko txostena egin dezaten. Epe horretan txostenik egiten ez bada, aurrera egin ahal izango du udal-lizentzia emateko prozedurak.”

Ikusirik, goian aipaturiko hilabetea igaro dela, Gipuzkoako Foru Aldundira Agiñazabal Handi baserriko lurretan pabiloi bat egiteko dokumentazioa igorri zenetik, azken honek zegokion txostena egin ez duelarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, Irazu zinegotziaren abstentzioarekin, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENA: Agiñazabal Handi baserriko lurretan pabiloi bat egiteko obra baimenaren prozedurarekin jarraitzea.

BIGARRENA: K.I.M. jaunari jakinaraztea, Agiñazabal Handi baserriko lurretan eraiki nahi duen pabiloiaren obra baimena lortu ahal izateko, Udaletxe honetan, pabiloiaren exekuzio proiektua eta jarduera proiektua aurkeztu beharko duela.

HIRUGARRENA: Interesatuari erabaki honen berri ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

AITZOL	56,84
HERMEX	78,29
EBA ERKIZIA	402,38
KIROLZER	148,25
URBELTZ KOMUNITATEA	9,56
BERRI LANTEGIA	158,91
MOVISTAR	17,68
MOVISTAR	92,82
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	102,98
IBERDROLA	132,75
IBERDROLA	242,94
IBERDROLA	347,56
IBERDROLA	153,94
IBERDROLA	181,92
IBERDROLA	42,56
IBERDROLA	21,94
IBERDROLA	209,12
EUSKALTEL	156,34

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **2.577,25** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


ZORTZIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

8.1. LARRAULGO EKIENE 16-B ETXEAREN GANBARAN, KOMUN BAT ETA BI LOGELA MOLDATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA.

Ikusirik M.S.G. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Ekiene 16-B etxearen ganbaran, komun bat eta bi logela moldatzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2012ko otsailaren 29an, Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO EKIENE 16-B ETXEAREN GANBARAN, KOMUN BAT ETA BI LOGELA MOLDATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

M.S.G. andreak, Ekiene 16b etxearen ganbaran komun bat eta bi logela moldatzeko baimena eskatzen du, egin beharreko lanen aurrekontu eta plano bat aurkezten duelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, ZERA ADIERAZTEN DUT:

Aurkeztutako eskaeran, gaur egun barne banaketarik gabe dagoen ganbaran, bi logela eta komun bat moldatu nahi dela esaten da, planoetan azaltzen diren paretak eta atearak jarritz. Lan hauen aurrekontua BEZ-a gabe 3.280€-koa izango litzateke.

Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, hirigintza-disziplinaren arautegiaren lehenengo artikuluan azaltzen diren ekintzak, udal lizentzia behar dute. Lehenengo artikulua horretan, eraikinen barruko antolaketa aldatzen duten lanak sartzen dira.

Ekiene 16-B etxea Larraulgo lur hiritargarran kokaturik dago, bereziki A.I.U.1 kontsolidatutako kaskoan. Proposatzen diren lanak barne distribuziokoak dira bakarrik eta ez dute hirigintzako aprobetxamendurik aldatzen.

Sortzen diren barne-espazio berri hauek Larraulgo araudiak ezarritako bizigarritasun baldintzak bete behar dituzte, kasu honetan, bereziki, Larraulgo Arau subsidiarioen Lur hiritargarriko 34º artikulua dioena:

-Iluminación y ventilación de las piezas habitables.

Todas las piezas habitables de las viviendas tendrán iluminación y ventilación natural por medio de una o más ventanas abiertas en fachada.

La superficie de iluminación de las piezas habitables no será inferior a un décimo de la superficie de su planta.

La superficie de ventilación se podrá reducir hasta un tercio de la iluminación.


Los cuartos de baño podrán ventilarse mediante conductos de ventilación individuales con una superficie libre de 150 cm². Caso de disponer de rejilla en el arranque del conducto de ventilación se garantizará una abertura mínima permanente de 100 cm².

No se permitirá la iluminación ni ventilación mediante huecos construidos en la cubierta, a excepción de aquellos huecos de acceso al tejado.

Hau honela izanik, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.

Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde beharko dira.”

Gaia aztertuturik, Udalbatzak, aho batez, ondorengo



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: M.S.G. andreak eginiko eskaera onestea, hau da Larraulgo Ekiene 16-B etxearen ganbaran, komun bat eta bi logela moldatzeko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotzen diren baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza Fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

8.2. 2012 URTERAKO TOLOSALDEA GARATZENI EGIN BEHARREKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek igorritako idatzia, non 2011ko abenduaren 19ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2012 urterako Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 4.095 euro direlarik.

Aipaturiko diru kopuruaren ekarpena bi zatitan burutu dadin proposatzen da, ekarpen bakoitzean % 50a egingo delarik: Lehena, martxoaren 30ean eta bigarrena, irailaren 30ean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzeni, 2012urteko lehen ekarpena burutzea, hau da, 2.047,50 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 2.047,50 eurotako gastua onestea.

8.3. TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEARI, 2012 URTEKO URTARRILETIK-EKAINERA EGINGO DUEN HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA ZERBITZUAGATIK DIRU EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Mankomunitateak igorritako faktura, 2012ko urtarrilaren 31koa, 2012 ekitaldirako hiri hondakinen kudeaketa zerbitzuagatik, urtarriletik ekainera bitartean izango dena, Tolosaldea Mankomunitateari egin beharreko faktura ordainketa burutu dezan eskaera egiten du, bere zenbatekoa 8.896,63 euro direlarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Mankomunitateari, 2012/21 fakturaren ordainketa burutzea, hau da, 8.896,63 eurotako diru kopurua.

BIGARRENA: 8.896,63 eurotako gastua onestea.

8.4. I.K.T. AHO KULARI, TEKNIKO ETA DINAMIZATZAILE ZERBITZU PARTEKATUA TOLOSALDEAN PROIEKTUA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldea Garatzenek aurkezturiko proiektua, hau da, I.K.T. Aholkulari, Tekniko eta dinamizatzaile zerbitzua partekatua Tolosaldean. Proiektu honen barruan, aditu baten zerbitzu partekatua eskaintzen dute Tekniko lanak, aholkularitza lanak eta dinamizazio lanak egingo dituenak.

Zerbitzu partekatu honen kostea 1.440 eurotako izango litzateke urte osoan, dedikazioaren aldetik, hamabostean behin jardun erdiko dedikazio eskusiboa izango lirateke eta dedikazio amankomun bat ere. Iraupenaren aldetik, 2012ko martxoaren 15ean martxan hasiko lirateke eta 2013ko otsailaren 28 arte izango zen.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- Larraulgo Udala, I.K.T. Aholkulari, tekniko eta dinamizatzaile zerbitzu partekatuan Tolosaldean, proiektuan sartzeko onspena ematea.

BIGARRENGOA.- Alkate-Lehendakari jauna ahalmenu, dagokion hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENGOA.- Erabaki hauen berri Tolosaldea Garatzen ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Ez dira aurkezten.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.40 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA